



ASTEAZKENA

2023/06/07
11. urtea, 1.800. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

Gazte Festak ospatuko dituzte Ibarren

Ostiraletik igandera
ekitaldi ugariz gozatzeko
aukera izango da // **3**

Urtzi Gurrutxagaren oroimenezkoa jokatuko dute larunbatean

Alebin mailako mutilen
futbol txapelketan 16 talde
lehiatuko dira Tolosako
Berazubi zelaian;
Tolosa CF-ren hiru taldeek
hartuko dute parte // **7**



Nerea Perez (Tolosa), Ane Sanchez (Anoeta) eta Ohiane Iraola (Tolosa) arraunlariak, Tolosan. ZURIÑE IGLESÍAS

Bandera gehiago pilatzeko prest

Nerea Perez Donostiarrako patroia, Ane Sanchez Arraun Lagunakeko arraunlaria eta Ohiane Iraola Oriokoa liga eta Kontxako Bandera irabazitakoak dira; hastear den Euskotren ligari begira jarri dira // **4-5**

«Ahozkoa lantzeko ez da jartzen baliabide didaktikorik»

IÑIGO OTAEGI ETXEZARRETA IKERTZAILEA

Adierazkortasuna lantzeko proposamen didaktikoa ari da lantzen billabonatarra master bukaerako lan moduan; Euskaltzaindiak ahozko jarduna ikertzeko beste zazpi egitasmorekin batera saritu du // **2**

ehun #
FISIOTERAPIA

Tel.: 633 04 94 74
www.ehunfisioterapia.eus

sulumobel
1.990€* -tik hasita
**egokitu zure
sukaldea
zure bizitzara**

Adinekoentzat **segurtasuna** eta
irisgarritasuna ematen dituen soluzioa.
*Basic-pack eguneraketa.
Informazio gehiago:
www.sulumobel.com



altzari egokituen soluzio integralak

Jon Miranda

Ahozko jarduna ikertzeko zortzi egitasmo saritu ditu Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez. Saritu duten master amaierako lanetako bat, Jon Basauri sor-luzetarrarekin batera, Iñigo Otaegi Etxezarretak (Amasa-Villabona, 1996) aurkeztu du. Adierazkortasuna lantzeko proposamen didaktikoa da.

Non du sorburua ikerketa proiektu honek?

Irakaskuntzan Irakasle Gisa Aritzeko Gaitzen duen Unibertsitate Masterra egiten ari gara, eta ikasketan barruko praktikaldian etorri zitzaidan lehen ideia. Tolosako Herrikiden jardun nuen DBHko hirugarren mailako ikasleekin. Gutxi-asko formalki eduki batzuk euskaraz emateko gai zirela ikusten nuen, baina erregistro informalagoetan, lagunartean, ezina nabari nien. Esan nahia bai, baina mugatuta ikusten nituen, berehala pasatzen ziren erdarara. Barru barrutik esan beharreko gauzekin pasatzen zaie hori, parekoarekin haserretzen direnean, adibidez. Horrelakoetan nekez bukatuko dute esaldi bat euskaraz.

Sekuentzia didaktiko bat prestatu zenuen Herrikideko ikasleekin probatzeko.

Bai. Anbiziotsuegia zen, akaso. Astebetez, lau saiotan landu nahi izan nuen gaia ikasleekin, baina ez nuen denbora nahikoa izan. Lehenik eta behin egoera komunikatibo errealak proposatu genizkien ikasleei. Antzezten jarri genituen. Ikusi genuen aldiro erdarazko makulu horiek agertzen zirela. Saiatu ginen hutsunea identifika zezaten dinamika batzuen bitartez. Segidan, eredu batzuk erakutsi genizkien, lagunarteko elkarrizketa informalek eta euskaraz adierazkorrek direnak nolakoak izan daitezkeen ikus zezaten. Ibili ginen sarean arakatzeko, adierazkortasun handiko esaldi eta hitzak apuntatu genituen. Asmoa zen, testuinguru komunikatibo bat hartu eta elkarrizketa labur bat taldean idatzi ondoren ahotsez eta gorputzez antzezte. Astebetean egiteko lan gehitxo zen ordea. Ikasleak ere ez daude ohituta horrelakoetara, ez zaie formazioa ematen jendaurrean aritzeko. Gabezia bat agerian uzteko ere balio izan zuen lanketak. Oro har esateko, gazte-
txoek ez dute modu adierazkorrean komunikatzeko tresnarik eskura.

Gai beraren inguruan prestatu-ko duzue master amaierako lana?

Horrela da. Herrikiden izandako

«Gazteek ez dute modu adierazkorrean komunikatzeko tresnarik»

IÑIGO OTAEGI ETXEZARRETA IKERTZAILEA

Master bukaerako lan gisa, adierazkortasuna lantzeko proposamen didaktikoa jorratzen ari da; egitasmoa Euskaltzaindiak saritu du orain Mintzola egitasmoaren barruan



J.M.

esperientzia horretatik abiatuta, tutoreak komentatu zidan adierazkortasuna lantzeko proposamen didaktiko bat landu genezakeela master bukaerako lan bezala. Nik badut gaiaren inguruko interesa, are gehiago, Hizkuntza eta Literatura espezialitatetik etorrita. Taldean ari gara eta beste bi kiderekin batera lanari azken ukituak ematen gabilta orain. Aurki aurkeztuko dugu.

Zerk mugatzen du gazteen adierazkortasuna?

Faktore asko daude. Uste dugu gazte hauei ereduak falta zaizkielela. Geroz eta gizarte indibidualistagoan bizi gara. Umeak pantailei begira pasatzen dute eguna eta handik jasotzen duten gehiena ez da euskaraz izaten. Hedabideetan zein hizkera mota nagusitzen den ikusi besterik ez dago. Eskoletan ere ahozkotasuna ez da behar bezala landu izan, idatziak eta irakurriak beti izan du lehentasuna. Ez diogu guk bakarrik, aditu askok esaten dute D ereduak ez dituela euskaldun osoak ekoitzi. Hutsune handia dagoela iruditzen zait, eta guk, ikerketa proiektu honekin, arrastotxo utzi nahi genuke arlo honetan. Eskolak bakarrik ezingo dio guzti honi buelta eman baino ikerketa hau, behintzat, hasiera bat izan liteke.

Adierazkortasuna lantzeko imitazio-jolasak proposatzen dituzue. Zergatik?

Imitatzeko asko ikasten delako. Adierazkortasunean ez da soilik esaten dena garrantzitsua, nola esaten den baizik: intonazioa, ahoskera, gorputz espresioa... Horrek guztiak egiten du diskurtso bat adierazkorra. Master amaierako lanerako bideoz grabatu ditugu hiztun on batzuk eta egoera komunikatibo ezberdinetan jarri ditugu. Nola hitz egiten duten ikusi eta hori bera imitatzeko proposatuko diegu ikasleei. Interbentzio motz bat hartu eta hori imitatu, hasi eta buka, esan indarra, gorputzeko keinua, begiratu, ahotsaren doinua, esaldia-
ren kantaera...

Non topatu dituzue euskaraz adierazkortasun handiko hiztunak?

Kalean. Ez da urrutira joan behar. Zergatik ez dugu kale hizkera bizi darabilen jendea grabatzen? Eta ikasleei horiek imitarazten? Adineko jende asko dago euskaraz era guztietako emozioak bizibizi adierazteko gai dena. Eredu onak hor daude. Guk haiekin elkarrizketak izan ditugunean ez diegu gehiegi xaxatu behar izan hizketan hasi daitezen. Dena den, ispilu bezala funtzionatuko duten pertsona horiekin ikasleak

identifikatu daitezten, jende gaztearen ereduak ere jaso dugu. Hel-du eta gazte. Emakume eta gizon. Herri ezberdinetako jendea. Zuka eta hika aritzen dena.

Zenbaterainoko garrantzia du euskalkiak adierazkortasunean?

Ni neu ere konturatzen naiz, adierazkortasunaren bila gehiago jotzen dudala euskalkira, batura baino. Beti egokitasunari begiratu behar zaio, jakin egin behar da noiz erabili bata eta bestea. Baturan ere badaude hizketa molde adierazkor askoak. Ikasleak ere jarri nahi genituzke, adibidez, Euzkitze imitatzen, tanto baten kontakizuna egiten duenean. Gazte-
txoak agian ez dira hurrengo egunetik aurrera horrelako esamoldeak erabiltzen hasiko, baina zerbait geratzen bazaie eta al-dian-al-dian erabiltzen badute, bada zerbait.

Jende asko dago era guztietako emozioak euskaraz bizi-bizi adierazteko gai dena. Zergatik ez ikasleei horiek imitarazi?

Master amaierako lana saritu du orain Euskaltzaindiak. Nola izan zenuten bekaren berri?

Gure irakasleak esanda. Ikertzaile gazte edo hasiberrientzako beka da, unibertsitateko edozein jakintza alorretatik abiatuta, euskaraz egiten den ahozko jarduna iker-gai gisa aukeratu izana saritzen dute. Ikusi genuen gure proiektua ondo txertatzen zela deialdian.

Proiektuagaratzeko iraila arteko epea duzue. Master amaierako lanari ezer gehitu-ko al diozue?

Ez dira berdin berdinak izango. Gure asmoa ikerketaren eremua zabaltzea da, baina ez dakit horretarako aukera izango dugun. Orain arte, Tolosako Herrikide-
ren esperientziari helduta eta hango ikasleentzako proposamen didaktikoa landu nahian, gehienbat Tolosaldean bildu ditugu ahozko testigantzak. Polita izango litzateke beste zenbait eskualdeetan ere adierazkortasun handiko hiztunekin egotea eta haien audioak jasotzea. Guk aplikatzeko moduko zerbait egin nahi dugu. Ahozkoa landu behar dela esaten da hezkuntza curriculumean baina gero baliabide didaktikorik ez da jartzen. Irakasleak formatu gabe daude, ahozko komunikazioa definitzen ere lanak ditugu. Panorama honen aurrean, zerbait landu beharra ikusten genuen eta ikerketa honekin gaiari heldu nahi diogu.

Gazte Festak ospatuko dituzte asteburuan

Ibarrako Gazte Asanbladak ostiraletik igandera bitarteko egitarau oparoa antolatu; etzi arratsaldean hasiko dira jaiak

Erredakzioa Ibarra

Gazte Festek jarriko dute asteburuan giroa Ibarra. Etzi arratsaldean botako dute jaien hasiera iragartzen duen suzeria, eta igandera bitarte etenik gabeko festa izango da. Etzi, esaterako, sagardo dastaketa izango da, eta ondoren, bertso afaria plazako aterpean. Larunbatean dantza emanaldia izango da, eta gauean kontzertu sorta aukeran, eta igandean afaria gaztetxean. Gazte Asanbladak herritar guztiak gonbidatu ditu parte hartzera.



3x3 futbol txapelketa egin zuten duela bi urte. E. MAIZ

EGITARAUA

Ekainak 9, ostirala

17:31. Txupinazoa.
18:02. Kirol ikuskizuna, plazan. Beasaingo harri jasotzaileak eta Ibarako sokatira taldea.
18:59. Sagardo dastaketa, plazako aterpean.
21:01. Bertso afaria, plazako aterpean.
00:06. Kontzertuak: Laket, Mutiko eta Denso productions, plazan. Eta,

Manitu eta DJ Eo, gaztetxean.
01:02. Ekitaldia, plazan.

Ekainak 10, larunbata

10:31. 4x4 futbol txapelketa. San Inazio futbol zelaian.
17:04. Dantza emanaldia, plazan. Alurr dantza taldearen eskutik.
17:57. Tortilla eta txokolatea. Sendi ekintza elkartearen eskutik, plazan.
21:03. Barrikotea, plazan.

22:58. Kontzertuak: Coast Rebels, Istilu, Muxutruk erromeria, plazan. Eta, DJ Mondongo ariko da gaztetxean.

Ekainak 11, igandea

08:01. Gosaria, plazan.
17:59. Iago Mago, plazan.
Iluntzean. Gaztetxean afaltzeko aukera egongo da, eta ondoren DJa izango da.

Gazteen elkargune izango da Gazteburua

Tolosako Gazte Asanbladak antolatuta, ostiralean eta larunbatean hitzaldiak, otorduak, txapelketak bertsoak edota musika izango dira

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Gazte Asanbladak antolatuta Gazteburua izango dute asteburuan Tolosan. Duela ia hamar urte sortutako ekimena da, gazteen arazoak gizarteratu eta euren arteko harremana sustatzeko. Ostiralean eta larunbatean izango dira ekitaldiak, ia denak, Plaza Berrian, eta besteak beste, solasaldia, bertso saioa, bazkaria, jolasak eta musika izango dituzte. Kirol jardueren txapelketetan izena emateko 688 669 760 telefono zenbakira deitu behar dela azaldu dute. Bazkari-rako tiketak, berriz, Raku tabernan daude salgai, 8 euroan.

EGITARAUA

Ekainak 9, ostirala

18:00. Gazte Mugimenduaren bilakaera Tolosan solasaldia.
19:00. Bertso saioa: Gorka Pagona-barraga, Aroa Arrizubieta, Maddi Sarasua, Urko Arregi eta Igauri Lopetegi.
20:30. Pintxo afaria eta ondoren, DJ-a.

Ekainak 10, larunbata

11:30. Street boulder eta futbito txapelketak, Armeria plazan.
14:00. Bazkaria.
Ondoren. Jolasak.
21:00. Ekitaldi nagusia.
21:30. Kontzertua: No Te Crew.

Ingurumenaren Egunaren harira, jarduerak

Erredakzioa

Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren harira, gaiarekin lotutako hainbat ekitaldi izango dira eskualdean. Tolosako Udalak, esaterako, bat egin du egun horren ospakizunarekin, eta Biodibertsitate Guneak sustatuta, hainbat jarduera egingo dituzte. Hala, hilaren 14an, asteazkena, landare-diari loturiko espezie exotiko inbaditzaileen inguruko mintegia eskainiko dute, 18:00etan, Antxon Bandres bidaiarien txokoan, eta hilaren 18an, igandea, irteera bat antolatu dute Urkizura, Tolosaldeko zuhaitz eta zuhaixkak ezagutzeko. Dama Berdetik abiatuko dira, 09:00etan.

Biodibertsitate Gunea duela bi urte sortu zuen Tolosako Udalak, «tolosarrei gaiari buruzko erreferentziatzeko gunea eskain-

tzeko eta jasangarritasunaren bidean urrats bat gehiago emateko, ezagutza zabalduz».

ZIENTZIA PROIEKTUA

Biodibertsitate Guneak Tolosaldean harrapatutako fauna basatiaren jarraipena eta monitorizazioa egiteko herritarren zientzia proiektua ere jarri du abian, eskualdeko bide-sareak inguruko fauna ornodunean duen eragina ezagutzeko.

Lankidetzaren proiektua dela azaldu dute udaletik, eta aurrera eramateko «ezinbestekoa» dela herritarren partaidetza. Izan ere, helburua da herritarrek, borondatez, eskualdeko pistetan edo bideetan harrapatutako fauna basatiaren informazioa jasotzea eta informazio hori Biodibertsitate Guneari helaraztea. Horren bitartez, besteak beste, harrapatzeek gehien eragindako espe-

zieak identifikatu nahi dituztela adierazi dute, baita, harrapaketa kopuruari dagokionez, urtarotaldaketa dauden egiaztatu, Tolosaldeko bide-sareetako puntu-beltzak identifikatu, edota, hala badagokio, harrapatze horiek saihesteko eta murrizteko irizpideak diseinatu eta eskaini ere.

Herritarren zientzia proiektu hori bi fasetan garatzea aurreikusi dute. Lehen fasea jada martxan da eta abendura bitarte luzatuko da. Denbora horretan, herritarren parte-hartze, inplikazio eta lankidetzari esker, Tolosaldean harrapatutako faunari buruzko datuak jasoko dituzte, datu-base bat osatzeko. Datu-base horretan jasoko dira, besteak beste, espeziearen izena, kokapena, bide-mota, data, behatzailea, irudia (baldin badago) eta datu interesgarriak/informazio osagarria.

Hala, harrapatzeren bat detektatzen duten herritarrek horren berri eman dezakete biodibertsitategunea@gmail.com helbidera idatziz edo 630 58 00 54 zenbakira whatsapp mezua bidaliz.

Bigarren fasea, bestalde, 2024an zehar garatuko da, eta kasu honetan, harrapatutako faunari buruzko datuak hartu eta hainbat transeptu egingo dituzte, ibilgailuz edo oinez egin ohi diren joan-etorriak aprobeztatuz. Horietan, detektatutako animaliak erregistratuko dira, ondoren aztertzeko.

ITSASPEKO ZINEMA

Ekainaren 14a bitarte Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren 4. edizioa ospatzen ari da Tolosan. Itsaspeko mundua ezagutzeko eta itsaso eta ozeano guztien zainketaren kontzientzia zabaltzeko, besteak beste,

doako zine emanaldiak eskaintzen ari dira Topic-en.

ZIZURKILGO HERRI ESKOLA

Aiztondo bailaran ere Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatuz hainbat ekintza burutu dituzte. Esaterako, Atxulondon patin zirkuitua jarri zuten, Asteasura irteera egin zuten bizikletaz, eta *Murriztu, berrerrabili, birziklatu* antzezlanak ikusi zuten.

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño Herri Eskolak urte asko daramatza, ingurumenaren, naturaren, ama-lurraren alde lan egiten, eta lan horren aitortza da lortu duten Eskola berdea, eskola jasangarria ziurtagiria. Ziurtagiri ofiziala ekainaren 6an jaso zuten, Bizkaian burutu zuten ekitaldi ofizialean, eta bertara hurbildu ziren eskolako eta udaleko ordezkariak.

Zuriñe Iglesias Sarasola

«Irabazteak ez dakar zertan gozamena», horretan bat egin dute zalantzarik gabe Ohiane Iraola (Tolosa, 1992) Orioko arraunlariak, Ane Sanchez (Anoeta, 1998) Arraun Lagunakekoak eta Nerea Perez (Tolosa, 1997) Donostiarrako patroiak. Hirurek dakite zer den Euskotren liga eta Kontxako Bandera irabaztea: Iraolak Oriorekin hiru aldiz irabazi zituen biak urte berean —2019, 2020, 2022—; Sanchezek Arraun Lagunakekin 2021ean; eta Perezek bost aldiz jarraian irabazi zituen San Juanen egon zenean, 2014tik 2018ra.

Anoetarrak orain dela bi urte liga eta Kontxa irabazi zituen arren, denboraldi «gazi-gozoa» izan zela nabarmendu du: «Pertsonalki momentu garrantzitsuak pasatzen ari nintzen, eta beste urte batzuetan nahiz eta ezer ez irabazi, askoz gehiago disfrutatu dut. Helburua Kontxa eta Liga irabaztea zen, baina gero askoz faktore gehiago daude kanpotik eragin handia dutenak disfrutatzeko: taldea nola dagoen, zu nola zauden... urteak pasatu ahala, denak aldatzen goaz».

Bide beretik, Iraolak adierazi du 2019an dena irabazi zutela Oriorekin, eta ez daki zer zen, baina ez zion utzi «disfrutatzen»: «Lehen denboraldia izan zen dena irabazi genuela, berria zen sentsazio hori, eta ez dakit kontzentrazioa ote zen, baina ez nuen gozatu. Denboraldia bukatu genuenean jabetu nintzen egindakoaz, baina momentuan ez nekien nola disfrutatu».

Perezek ere, San Juanekin egondako azken urtean, 2018an, nahiz eta liga eta Kontxa irabazi, ez zuen «disfrutatu», klubeko zuzendaritzarekin izan zituzten «arazoengatik». Gero, Hondarribiara joan zen, «ilusio berriekin»: «Hor bai gozatu nuela, ezer ez irabazi arren».

HIRUREN IBILBIDEA ARRAUNEAN

Iraolak hamahirugarren denboraldia egingo du Euskotren ligan, eta guztietan Orion arituko da. Nagore Urdapilleta Bidania-Goiatzko arraunlariak ere han egiten du arraun. Tolosarra «errespetu osoz» iritsi zen Oriora, «oso desberdina» delako nola bizi duten arrauna Tolosan ala Orion: «Hasieran pentsatzen nuen: 'Nora etorri naiz? Nik ia ez dakidala arraunean eta hemen denek dakite dena...'». Orain, ordea, «bertako bat bezala» sentitzen da.

«Gutxi ibiltzen naiz Orioko

«Irabazteak ez dakar zertan gozamena»

Euskotren liga irabazteko borrokan izango dira Ohiane Iraola Orioko arraunlaria, Ane Sanchez Arraun Lagunakekoa eta Nerea Perez Donostiarrako patroia



Nerea Perez, Ane Sanchez eta Ohiane Iraola eskualdeko arraunlariak. Z. IGLESIAS

kaleetatik, baina handik nabilean ia denek ezagutzen zaituzte. Nesken traineruan ere eboluzio bat egon da. Taldea hobetzen joan den heinean, herria

ere gehiago gerturatu da guregana eta uste dut Orion mutilen pare gaudela zentzu horretan», azpimarratu du Orioko arraunlariak.

Hainbeste denboraldi arraunean egitean, Iraolari galdetuta ea ilusio berdinarekin heltzen dion bakoitzari, esan du orain «zaila» egiten zaiola uztea, ikus-

ten duenean noraino iritsi diren: «Hasieran ahal genuena egiten genuen, eta urteekin pausoak ematen joan gara. Ikusita zenbat lan egin dugun, pena pixka bat ere ematen du uzteak. Urtez urte ilusio handiagoa dut, ikusten duzulako hobetzen zozazela».

Iraola ez bezala, Sanchez eta Perez zenbait herritako traineruetan egon dira. Anoetarra, Tolosaldean, Hernanin eta Arraun Lagunaken egon da. Donostiako traineruan egin ditu azken hiru urteak, eta oraingoa laugarrena du. Xubane Arantza Uribarrena Lizartzan bizi den arraunlaria ere Arraun Lagunaken dago.

Perez, berriz, Zarautzen, San Juanen, Hondarribian eta Donostiarran egon da. Donostiako traineruan hirugarren urtea osatuko du aurtengoan, eta Maider Zumeta ibartarrarekin eta Olatz Lopez tolosarrarekin batera dago taldean.

TXANDA BATETIK
BESTERAKO ALDEA

Aurtengo Euskotren ligak berritasun bat izango du: lau traineru beharrean zortzi lehiatuko direla. Horrek zer eragin izango duen galdetuta, bereziki haiengan, gorengo postuetan egongo diren ontziak direla jakitun, hirurek bat egin dute esanez bi

«Taldea hobetzen joan den heinean, herria ere gehiago gerturatu da, uste dut mutilen pare gaudela»

OHIANE IRAOLA
ORIOKO ARRAUNLARIA

txanda egoteak, asko aldatu ditzakeela txanda batetik besterako aldeak eta horrek, eragina izan dezakeela ligako sailkapen orokorrean.

«Lau traineru geundenean, azken hiru estropadetan azkenengo postuan geratu arren, liga gutxi gorabehera irabazita zenuen, aurretik gauzak ondo egiten bazenituen. Orain, uste dut diferentzia asko egongo dela txanda batetik bestera. Alegia, lehen ontzitik bosgarrenera alde handia egongo dela», azaldu du Donostiarrako patroiak.

BALDINTZA METEOROLOGIKOAK

Aldi berean, Arraun Lagunakeko arraunlariak gehitu du txanda batetik besterako baldintza meteorologikoak «asko aldatu» daitezkeela: «Baldintza meteorologikoen eraginez bigarren txandako norbait gorengo postuetan sartzen bada, kalte han-

dia egin diezaioke goiko talde bati, eta agian, sailkapeneko postuak ez dira benetan horrela». Hala eta guztiz ere, Sanchezek adierazi du emakumezkoen arraunarentzako «positiboa» izango dela aldaketa, «gehiago ikusiko delako, eta aukera zabal-tzen duelako emakume gehia-gok lehen mailan arraun egin dezaten».

LAU ONTZITIK, ZORTZIRA

Sanchez eta Perezek aipatu du-tenarekin ados dagoela esan du Orioko arraunlariak, eta beste ertz batetik heldu dio gaiari. «Arraun ikuspuntutik aparte, aurrerapauso bat da zortzi ontzi egotea, baina horri ere kontrako aldea ikusten diot. Ziurrenik ba-ten bat haserretu egingo da esango dudanarekin, baina pentsatzen dut jasotzen ari ga-ren honekin, lau ontzitik zortzi izatera pasatzearenarekin, ez garela konformatu behar eta gure aldetik ere zerbait eman behar dugula. Guk ere jarraitu behar dugu nesken arrauna lan-tzen, geroz eta hobeago izaten ja-rraitzeko», hausnartu du Irao-lak.

Bestalde, Sanchez eta Iraola arraunlariak, kritikatu egin dute Galiziatik bai ala bai bi trai-neru egon behar izatea Eusko-tren ligan, Euskal Herriko gai-nerako ontziak ez bezala, ez du-telako kanporaketarik jokatu gorengo ligara igotzeko. «One-nek egon beharko lukete Eusko-tren ligan. Niretzako da lanak ondo ez egitearen ondorio bat. Garai batean beraiek [galizia-rrek] egiten zutena zen hango onenak elkartu eta selekzio mo-duko bat hona ekarri. Han ez ze-goen harrobiko lana traineruen ikuspegitik eta orain atzeratuta geratu dira hemengoekin kon-paratuta. Orain hemengo talde batzuk maila hobeago batean daude eta aukera gabe geratu dira», aztertu du zorroztasunez Orioko arraunlariak.

Hirurak eskualdekoak badira

ere, Sanchezek bakarrik egin du arraun Tolosaldeko traineruan. «14 urterekin hasi nintzen kade-teetan Tolosako bateletan. Gero, gazte mailan Hernanik trainerua atera nahi zuen eta ez zituenez nahikoa neska ontzi bat ateratzeko, Tolosarekin hitz

«Eguraldiaren eraginez bigarren txandako norbait igoz gero, kaltea eragingo dio goiko talde bati»

ANE SANCHEZ
ARRAUN LAGUNAKEKO
ARRAUNLARIA

egin zuten eta batzuk hara joan ginen hiru urtez». Izan ere, To-losan 2013tik 2017ra ez zen trai-nerurik izan.

Anoetarrak adierazi du or-duan beti hitz egiten zutela noiz aterako ote zuten Tolosaldeko trainerua, eta azkenean, Jose Luis Perez Cotelí-rekin osatu zu-ten, Perezen aitarekin: «2 urtez [2018-2019] egon nintzen Tolo-san. Ilusio handiarekin osatu genuen ontzia, denak bateletan

«Talde bateko partaide sentitzen zarenean, gero oso zaila da hori utzi eta berriz ere Tolosara itzultzea»

NEREA PEREZ
DONOSTIARRAKO
PATROIA

elkarrekin ibiltzen ginelako, eta lagunekin traineru bat atera-tzea izan zelako. Oso gazteak gi-nen, askorentzako traineruan aritzen ziren lehen urtea zen, eta nik lehen mailan egon nahi nuen, Euskotren ligan, alegia. Orduan, Arraun Lagunak tal-dera joateko aukera sortu zitzaid-an eta hara joan nintzen».

Iraola eta Perez, adinez hel-duagoak izanagatik ere, ez dute arraun egin Tolosaldeko traine-ruan. 2013an Zarautzen zegoen

Donostiarrako patroia, eta 15 ur-terekin, ez zuen «ezta imajina-tzen ere» trainerua egitea. Hor-tik, San Juanera joan zen, eta 2018an Tolosaldeak ontzia atera zuenean, deitu bazioten ere, ez zen joan: «Talde batean zaudela eta multzoa egiten duzunean, gero oso zaila da hori utzi eta be-rriz ere Tolosara itzultzea» Hala ere, 2017. urtean batelak egin zi-tuen Tolosan, Sanchezekin ba-tera.

Iraola 13-14 urterekin hasi zen arraunean, bere lagun batenga-tik. Txapelketa garaia iristen zirenean arraun egiten zuen ba-teletan. «17-18 urte nituela, Orio-tik deitu zuten neska bat behar zutela batela ateratzeko. Or-duan, niri galdetu zidaten ea hara joan nahi nuen, eta ez daki-danez ezetz esaten, han bukatu nuen. Eta han geratu naiz».

TOLOSALDEAREN IGOERA

Eskualdekoak izanagatik, hiru-rei galdetuta nola bizi izan zuten orain dela bi urte Tolosaldea traineruaren igoera Euskotren ligara, azpimarratu dute «ilu-sioa» egin ziela. Batez ere, igo baino aurreko denboraldian, kanporaketetan haiek «merezi izan» zutelako igotzea. «Kampo-raketetan ez zuten lortu igotzea momentuko tentsioagatik, eta normalean baino ilusio gehiago egin zidan, ikusita zer pasatu be-har izan zuten sasoi horretan», esan du Iraolak.

Bide beretik, Sanchezek gai-neratu du «berez, urtebete lehe-nago egon beharko luketela Eus-kotren ligan». «Gaztetasun eta esperientzia falta horrek egin zien ETEn beste urte bat pasa-tzea. Azkenean nirekin arraune-an ibilitako jende pila zegoen, lagunak nituen hor, beraz, haiengandik pozik nengoan». Perez, berriz, «ilusioa» egin zion, baina bera Hondarribian egon zenez bi urtez, eta haiek izan zirenez Tolosaren orde-z jai-tsi zirenak mailaz, «bihotza erdi-bituta» izan zuen.

MOTZEAN

1. ZEIN TRAINERU GERATUKO DIRA LEHEN LAU POSTUETAN EUSKOTREN LIGAN?

2. EUSKOTREN LIGA EDO KONTXAKO BANDERA

3. DENBORALDIRIK BEREZIENA?

4. ESTROPADA GOGOKOENA?

5. ZURE ONTZIAN BETI EGONGO LITZATEKEEN ARRAUNLARI BAT.



OHIANE IRAOLA
ORIO

1. Orio lehenik, Donostiarra gero, Arraun Lagunak ondoren eta laugarren Hondarribia.
2. Kontxa.
3. 2016koa entrenatzaile aldaketa izan genuelako, Xanti etorri zen. Taldeak sekulako pausoa eman zuen, eta hor hasi ginen aurreko traineruetara gerturatzen.
4. 2019ko Oriokoa, lehen aldia zen herrian irabazi genuena eta oso polita izan zen.
5. Leire Garate.



NEREA PEREZ
DONOSTIARRA

1. Donostiarra, Orio, Arraun Lagunak eta Hondarribia.
2. Kontxa.
3. 2017koa geneukan taldeko giroagatik.
4. 2014ko Ondarrukoa.
5. Ane Pescador.



ANE SANCHEZ
ARRAUN LAGUNAK

1. Arraun Lagunak, Orio, Donostiarra eta Tolosaldea.
2. Kontxa.
3. 2021. urtekoa, ametsa lortu nuen urtea izan zelako.
4. 2021eko Getxokoa, asko gozatu nuen.
5. Mireia Vicente.

atarikideen
abantailak

EHUN FISIOTERAPIA

%10eko
deskontua



PANTTA

Ardoa opari



TXINDOKIKO ITZALA

%10eko
deskontua



SOLUMOBEL

100 euroko
deskontua



ataria.eus/kideak





2017ko Larraulgo kirol astearen barruan, Larraulgo Infernua kronoigoera herrikoia egin zuten. JON MIRANDA

Kirol jarduera ugari antolatu dituzte aste honetan Larraulen

Kirol Astea prestatu dute Larraulen, eta larunbatera arte izango dute zertaz gozatu; datozen egunetan frontenisa, boleibola eta bizikleta ginkana egiteko aukera izango dute

Leyre Carrasco Larraul

Beroarekin nahikoa ez dutenez, gehiago izerditzeko aukera izango dute datozen egunetan Larraulen. Izan ere, Kirol Astea antolatu dute, eta egitarau zabal prestatu dute horretarako. Astelehenean eman zioten hasiera, eta jada zenbait ekintza egin dituzte; Kirol egokitua, jolasak, pala entrenamendua eta xakea, besteak beste. Hala ere, datozen

egunetan ere larrauldarrek izango dute zertaz gozatu herrian.

Bihar frontenis txapelketa izango dute jokoan 18:30ean herriko pilotalekuan. *Gure Plaza txo!* izeneko nerabeen sustapena lantzeko proiektuko kideen laguntzarekin antolatutako lehia izango da. Parte hartu nahi dutenek egunean bertan 17:30ean azaldu beharko dute frontoira.

Ostiralean, Aiztondoko Neska Kirol Taldeak antolatuta, boleibol partida izango dute jokoan 17:30etik aurrera frontoian. Kirol astearekin amaitzeko, berri, herriko gazteek eta gurasoek antolatuta, larunbatean bizikleta ginkana egiteko aukera izango dute herrian zehar. Horretarako, parte hartzaileek herriko plazara azaldu beharko dute, 11:00etan bertan emango baitio-te hasiera.

Boluntarioak behar ditu Tour Lagunak taldeak

Frantziako Tourra eskualdetik igaroko da uztailaren 2an, eta boluntario izan nahi dutenek igandera arte izango dute aukera

Erredakzioa Tolosa

Urtero ospatzen den nazioarteko kirol ekitaldi handienetakoa da Frantziako Tourra. Munduko txirindulari onenek parte hartzen dute, eta aurten eskualdetik igaroko dira uztailaren 2an.

Ezohiko ekitaldi horrek, ordea, aldaketak eragingo ditu kaletan zein errepidean, eta datozen asteetan emango dutela horien berri jakinarazi dute.

BOLUNTARIO IZATEKO AUKERA

Errepideetako etapen ibilbidean egotea izango da boluntarioen zeregina, eta 100 Tour Lagun baino gehiago behar dira eskualdean. Interesa dutenek igandera arte izango dute horretarako aukera, Tour Lagunak webgunean. Informazio gehiagorako turlagunak@euskadi.eus helbidera idatzita edo 625 709 994 edo 944 205 309 telefono zenbakietara deituta lortu daiteke.

Martxan da Zumardiaren udako kanpaina

Erredakzioa Tolosa

Urtero bezala, ume, gazte eta helduentzako ikastaroak eta proposamenak antolatu ditu Zumardia elkarteak udari begira. Besteak beste, ikastaroak, naturgoiz pasak edo mendi zeharkaldiak egingo dituzte, eta uztailaren 31ra arte luzatuko dira. Izen ematea zabalik dagoela jakinarazi dute eta elkarteak bazkideek %10eko deskontua izango dute horretarako.

Helduentzako proposamenei dagokienean, datozen egunetan zehaztuko direla adierazi du elkarteak, eta horiek Zumardia elkarteak webgunean jarriko dituzte ikusgai.

Udako kanpainaren informazio gehiago eskuratzeko edo jardueretan izena emateko interesa dutenek hiru bide izango dituzte: Zumardia.eus webgunean, info@zumardia.eus helbide elektronikoa edo 688 726 213 telefono zenbakia.

Hilberriak eta urteurrenak



**Jesus Aranberri
Zulaika**
-Goian bego-

Herenegun hil zen Usurbilen, 85 urte zituela.

*Belar txarrik gabeko baratza zurea,
osaba Jexux.*

Maitasunez, Montes Larrañaga, Loiola Aristi,
Aristi Bikendi, Aristi Otamendi eta Aristi
Ibarguren familiako zure ilobak.

URDANETAN, 2023ko ekainaren 7an

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Urtzi Gurrutxagaren oroimenezko torneoak, zortzigarrenez

Alebin mailako mutilen futbol txapelketa jokatu da larunbatean, Berazubi zelaian; 16 talde ariko dira lehian

Imanol Garcia Landa Tolosa

Urtzi Gurrutxaga oroitu eta omentzeko futbol torneoak jokatu da Berazubiko zelaian larunbat honetan, ekainaren 10ean. Zortzigarren aldiz antolatu du Tolosa CF klubak txapelketa, eta bertan alebin mailako mutilen 16 taldek parte hartuko dute. «Orain dela bederatzi urte joan zitzaigun gure kapitaina, eta bere omenez antolatzen du klubak txapelketa hau», esan du Haritz Doyharzabal Tolosa CF-ko jokalaria ohiak eta Urtzi Gurrutxagaren lehengusuak. «Tolosaldeko jende guztiari eta futbol munduko guztiei txapelketara etortzera animatzen diegu».

Tolosa CF-ko hiru taldek parte hartuko dute: Tolosa CF izenarekin aterako dena, eta besteak Urdina Txiki eta Tolosana izenekin. Beste taldeak ondorengoak izango dira: Danena, Billabona, Intxurre, Lazkao, Beasain, Touring, Vasconia, Zarautz, Martutene, Añorga, Eibar, Urnieta eta Real.

Torneoa 09:00etan hasiko da. Lau multzo osatuko dira, bakoit-



Francisco Valor eta Haritz Doyharzabal, torneoaren aurkezpenean. I.G.L.

tza lau talderekin, eta goizean zehar multzo bakoitzeko taldeek elkarren aurka jokatu dute. Multzo bakoitzeko lehen bi taldeak torneoaren adar nagusirako sailkatuko dira, eta arratsaldean jokatu dituzte kanporaketak eta finala. Aurreko urtean egin zuten moduan, multzo bakoitzeko azken bi taldeek ere arratsaldean jokatzen jarraituko dute, kontsolazio torneoan. Hor

ere finala jokatu da. Bi torneoetan lau lehenengoei sariak banatuko zaizkie, eta bi finalak 18:15ak inguruan jokatu dira.

Egun guztian futbola izango da protagonista Berazubin, beraz. Bazkaria eskainiko zaie taldeetako kideei, eta kamiseta bat banatuko zaie torneoaren oroigarri gisa. Publikoarentzat sarra hiru eurokoa izango da, eta zozketak ere egingo dituzte.

Eneko Maiz eta Luis Sanchez bikoak irabazi du Masters Dax txapelketa

Erredakzioa Amasa-Villabona

Eneko Maiz billabonatarak eta Luis Sanchez nafarrak trinketeko Master Dax txapelketa irabazi berri dute. Hegoaldeko bikoteak finalean Peio Larralde eta Peio Guichandut bikoari 40-36 irabazi zion. Partida oso borrokaturik izan zen, Maiz eta Sanchezen aurkariak estu jarraitu baitzieten neurketa osoan zehar. Luis Sanchez izendatu zuten txapelketa-ko jokalaria onena.



VII. Manu Muriel Oroimenezkoa lortu zuen Pasaia Futbol Eskolak, finalean Usurbil taldeari irabazita, larunbatean. Hirugarren postuan Billabona FKE geratu zen, etxeko taldea, eta laugarren Igeltegi talde donostiarra. Txapelketarekin bat eginenez, lore eskaintza egin zen eguerdian Manu Muriel oroitze-ko, bere familiaren parte hartzearekin. Bestalde, sarrerekin lortutako 800 euroak Bizi Poza elkarteari eman zizkieten torneo antolatu duten Billabona F.K.E. klubekoek. M. RODRIGUEZ



Unai Regillaga, Joseba Regillaga, Unai Saralegi eta Joseba Etxarri. ATARIA

Urrea Tolosa Judo Klubeko bi bikoteentzat

Unai Saralegi eta Unai Regillagak seniorretan, eta Joseba Regillaga eta Joseba Etxarrik juniorretan irabazi dute Espainiako Txapelketa katan

I. Garcia Landa Tolosa

Oraindik gertatu gabekoa lortu dute Tolosa Judo Klubeko bi bikoteek Nage No Kata modalitatean: biak geratu dira Espainiako Txapelketan lehen postuan. Unai Saralegik eta Unai Regillagak senior mailan lortu dute, eta Joseba Regillagak eta Joseba Etxarrik junior mailan. «Badaude Madril aldeko klub batzuk hori lortu dutena, baina Euskadi mailan lehenengo aldia da, eta Madrildik kanpo ere bai. Oso kontentu gaude, eta lana ondo egiten ari garen seinalea da», esan du Saralegik.

Senior mailako Saralegi eta Regillagarentzat berezia izan da lortu duten urrea. Beren bigarre-na da, baina aurrekoan ez zegoen euren aurkari nagusia den Extremadurako Antonio Marinek eta Eduardo Ayalak osatzen duten bikotea, eta oraingoan bai. 435 puntu lortu zituzten Tolosa klubekoek, eta 432,5 puntu aurkariak. «Oraingo honetan zozketan erdialdean tokatu zitzaigun parte hartzea, beraz bikote batzuek aurretik egindakoa bage-nekien», esan du Saralegik. «Kontuan izanik datorren astele-henean Europako Txapelketa

izango dugula, entrenamendu moduan hartu genuen Espainiako Txapelketa. Ondo atera zitzaigun, eta ikusten denez epaileei gustatu zitzaion, eta azkenik lortu dugu gure aurkari nagusiei irabaztea».

Junior mailan Regillagak eta Etxarrik nagusitasunez irabazi zuten, 437 puntu lortu baitzituzten eta bigarren bikoteak 406. Lehen urrea dute Espainiako Txapelketan. «Hasieran oso urduri geunden, bigarren geratu ziren Gayarre anaien aurka orain dela bi urte lehiatu baikin azkenekoz. Aurrekoan beraiekin berdinduta geratu ginen, baina urrea eurentzat izan zen», esan du Etxarrik. «Behin puntuazioa ikusita, oso pozik jarri ginen».

Bi bikoteen hurrengo erronka Eslovenian egingo den Europako Txapelketa izango da. Datorren astelehenean izango da jokoan kanporaketa eta hori gaindituz gero, finala izango dute asteartean. «Azken bi urteetan zilarra lortu dugu, eta aurtan urrearen bila joango gara», esan du Saralegik. Juniorrentzat lehen Europako Txapelketa izango da. «Espero dugu finalera pasatzea, eta ahal bada lehenengo postua lortzea», dio Etxarrik.



ASTEAZKENA, 2023KO EKAINAK 7
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 07

AGENDA

Deialdiak

Irura. Irurako adinekoak sasoiko egoteko egitasmoa. San Migel plaza-
atik 11:00etan abiatuta.
Tolosa. Euskal Herria furgonetazli-
buruaren aurkezpene eta solasaldia
Arkaitz Apalategi eta Nagore Liza-
rralderekin, Antxon Bandres Bidaia-
rien Txokoan, 19:30ean.
Tolosa. Gure Eskuk deituta, Fran-
tziako Tourra eskualdea zeharka-
tzen duenerako, ikurrinak presta-
tzea. Lizardi elkartearen, 19:00etan.

Jaiak

Anoeta. Jaiak: 19:00. Txalapartariak,
txupinazoa, kukuaren jaitziera eta
danborrada, Loatzo Musika eskolako
txarangarekin. Pregoiariak: Loatzo
Musika Eskola. 20:00. Sardina jatea.
21:00. Gabezin erromeria taldea.
Anoetako txozna batzordearen egi-
taraua: 19:30. Brindisa. 00:30. Herri-
ko DJ-ak.

Zinema

Tolosa. Cimasub Nazioarteko Itsas-
peko Zinema Zikloa, Topic-en,
19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. La tartana, Topic zentroan.
Txotxongiloen artea La Tartana
konpainiak sortutako unibertsoen
bidez hurbiltzen du.
Alkiza. Iñaki Epelde, Koldobika Jau-
regi eta Jose Luis Longaronen era-
kusketa Ur Mara museoan.
Zizurkil. Motxila ibiltarian misio be-
rriaren erakusketa: *Ipuinak nahas-
ten*. Plazida Otaño liburutegian.
Tolosa. Tolosako Nazioarteko Itsas-
peko Zinema Zikloa: Cimasubera
aurkeztutako argazki onenen era-
kusketa ikusgai dago kultur etxean.
Zizurkil. Santi Esnaolaren margola-
nak, Plazida Otaño liburutegian.

28 KANALA

15:00. Ur eta Lur.
15:30. Tolosaldea Gertutik.
16:30. Errimak bi oinetan.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Xaka.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearen
eguraldi iragarpena.
12:30. Pasahitza. Eskualdeko albiste-
en errepasoa.
14:00. Errezetak. Aintzane Artolare-
kin.
18:00. Desafioa. Herri kirolak Jose
Angel Sarasolarekin.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza,
Imanol Artola Felix-ekin.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Oscar Etxe-
beste Etxarri. Gernikako Arborearen
Lorategiak, 3. 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres
Morant. Zabalarreta lorategiak, 1.
943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Uda sasoiko giroa.
Goizean erdi eta goi-mai-
lako hodeiak ugarituz jo-
ango dira eta zerua estali xama-
rrik mantenduko dute egun oso-
an zehar. Hala ere, ez da
ekaitzetarako joerarik espero eta
ordutik gehienetan ateri eutsiko
dio. Hego/hego-ekialdeko haizea
nagusituko da eta tenperatura are
gehiago igoko da, 27-29 graduan
joz goia.

Bihar. Giro beroa. Goizean
hodeiak eta ostarteak
tartekatuko zaizkigu eta
orokorrean eguraldi eguzkitsua
izango dugu. Arratsaldean ordea
bero-hodeiak garatuko dira eta ez
da baztertzeko azken orduetan
ekaitzen bat lehertzea. Hala ere,
probabilitatea txikia denez, ordu-
rik gehienetan ateri egongo da.
Hego-haizeak joko du eta tenpe-
ratura antzeko balioetan kokatuko
da, 27-29 graduetan joko duelarik
goia.

TOLOSALDEKO ATARIK ez du bere gain
hartzeko egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.



ENERGIAREN INGURUAN LANDUTAKOA

**Iragan astean Uzturpe ikastolako kideen bisita izan zuten Ibarrako udaletxean. Hain justu, Uz-
turpe ikastolako Eskola Agenda 2030eko ordezkariak izan ziren. Energia, bizitzaren motorra
gaia oinarri hartuta ikasturte osoan zehar lanketa egiten aritu dira, eta bildutako materiala aur-
keztu zioten Igor Zapirain Ibarrako jarduneko alkateari. ATARIA**

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12 · 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com